

Legutio – Zalain –Berrioplano

Berrioplano, Legutio eta Zalaineko ELAren atal sindikalek gure gaitzespena eta aurkakotasuna adierazi nahi dugu CCOOk eta UGTk plataforma bateratuan sartu duten puntuaren aurrean, non ondorengo esaten den: **“Específicamente incluir los centros de Tailored Zaragoza, Europerfil y la división de tubos”**. Hau da, gure lantegiak akordio markoan sartzea eskatzen dute.

Berrioplano, Legutio eta Zalaingo ELAtik salatu nahi dugu ekimen hau lan zentru bakoitzeko ordezkaritza sindikalaren aurkako eraso zuzena dela, lan zentru horietako langileen ordezkaritza nahiak zapalduz.

Planteatzen dutenak atzerapauso nabarmena ekarriko du:

- **Lan-eskubideetan**
- **Autonomia sindikalean**
- **Plantillen erabakitzeko gaitasunean**

Gainera, ez du inolako zilegitasunik, ez baita gurelan zentruetatik sortutako aldarrikapena.

Era berean, CCOOk eta UGTk erakutsitako jarrera antidemokratikoa **salatu nahi dugu**. Izan ere, USO eta LAB negoziazio-mahaitik kanpo uztea bilatu dute lehen ahaleginean, eta, azkenean, bertaratzea onartu diete, baina hitza eta botorik gabe utziz. Jokabide horrek agerian uzten du sindikatu horien jarduteko modua.

ELAn uste osoa dugu hitzarmen kolektiboak berritzeko negoziazioek honako hauek bete behar dituztela:

- **Hurbiltasunetik** egitea.
- Lan zentru **bakoitzaren errealitateei** erantzutea.

Hori ez dator bat akordio markoek sustatzen duten ikuspegi zurrun eta zentralistarekin. Kezkatzen eta tristatzen gaitu CCOOk eta UGTk plantillen borondatearen aurka jokatzeta eta **haien baldintzak negoziatzeko eskubidea usurpatzea**.

ELA beti egongo da lan-baldintzak prekarizatzeko edozein ahaleginen aurka. Horregatik, ELAk Berrioplanon, Legution eta Zalainen:

EXIJITZEN DUGU: Proposamen hori negoziazio-plataformatik **berehala erretiratzea**.

ESKATZEN DUGU: Lantegi horietako **delegatu guztiek**, UGTkoek eta CCOOkoek barne, puntu hori **kentzeko jarrera hartzea eta eskatzea**.